



www.pixkanakakaskari.org/lanaur

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: **-%11,6**
Ibex35: **-% 1,49**
Bonoa 10urte: %1,96
KPI: %3,0 (martxoa)

2022 metatutako emaitza

-%4,35

Zorroaren banaketa

Err. finkoa %60,9
Err. aldakorra %34,1
Inb. altern. %5



Apirila 2022

Zaparrada kudeatu

Errenta aldakorrean zaplasteko globala izan dugun beste hilabete bat, IBEXak izan ezik, % 1,65eko igoera txiki batekin itxi baitu apirila. Bestetik, errenta finkoa duten inbertsio-ibilgailuetako partaidetzen balioa zamatzen duten interes-tasen goranzko joerak jarraitzen du.

Badakigu gure etorkizuna epe luzean dagoela, eta Errenta Aldakorrean esposizioa handitzeko estrategiari eusten diogu. Errenta Finkoan, agian gure estrategia berraztertzeke unea iristen ari da.




Gastuen aldaketa Lanaur HIRUn: gastu zuzenak eta zeharkakoak

Zuzeneko gastuak administraziokoak, auditoretzakoak, gordailuzaintzakoak eta abar dira, eta urtean Lanaur HIRUren ondarearen % 0,04 inguru suposatzen dute.

Zeharkako gastuak BGAEak inbertsioak egiteko aukeratzen dituen inbertsio-ibilgailuei lotutakoak dira. Horren zenbatekoa aukeratutako inbertsio-ibilgailuen araberakoa da, eta inbertsio alternatiboek, adibidez, ohiko funtsek baino komisio handiagoak izaten dituzte.

Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen du bi gastu moten baturak BGAEaren araudian jasotako gastu-muga ez gainditzea.

Horrek inbertsio alternatiboetan dugun posizioa handitzeko estrategia mugatzeko arriskua zekarren. Horrela ba, apirilean aho batez onartu da Lanaur HIRUren araudian gastu-muga berri bat jasotzea.



Gastu-muga berriak aukera ematen digu inbertsio berriei ekiteko.



Gastu-mugaren aldaketak aukera ematen du abenduan onartutako estrategia gauzatzeko: inbertsio alternatiboak urtean % 2 handitzea.